

Gizarte mailan bizi ditugun askatasun eta eskubideen urraketen aurrean, hurrengo lerroen bidez, AskeBizi Arratien taldeak ezinbestekotzat jo du haurrak ikastetxeetan txertatzearen kontrako gaitsezpena adieraztea, eta horren gelditzea eskatzea.

Eskola irakaskuntza oinarri duen hezkuntza arloa izateaz gain, haurren garapen kognitiboa, soziala, emozionala eta afektiboa babesteaz arduratu beharko litzatekeen erakundea da, eta ez, inondik inora, osasungintzaren esparrukoak diren kontuak burutzeko, kasurako, haurren txertaketetarako. Aipatu beharra dago, azpiegitura aldetik, ikastetxeak ez daudela horretarako prestaturik, eta edozein ezustekoren aurrean, zer gerta ere, anbulatorio edo bestelako osasun egoitzetan burutu behar direla, unean-uneko ezbeharrei behar den moduan erantzun ahal izateko. Ez dezagun ahaztu, haurrak txertatzeaz ari garela eta, gure ustez, horri merezi duen garrantzia eman behar zaio, beharrezkoak diren baldintzetan gauzatu behar delarik. Horrez gain, esparru ezberdinak izanda, ez diogu zentzurik hartzen biak nahasteari; beraz, hezkuntzari dagozkion kontuak eta osasungintzari dagozkionak erabat bereizita egon behar direlakoan gaude; hau da, nori berea.

Era berean, txertaketa garaian, haurrak txertatu ala ez erabaki eta baimendu aurretik, gurasoek argi izan beharko lukete zeintzuk izan daitezkeen txertoen albo-ondorioak; izan ere, eskolatik bidaltzen dizkienten oharretan, txertoen bigarren mailako efektuak urriak eta, oro har, arinak direla aipatzen da, baina ez dira inondik ere zehazten. Horren aurrean, gurasoek ondo jakin beharko lukete zer sinatzen duten, jakitun egon daitezzen euren seme-alabei zerbait gertatuz gero, beraiek izango direla horren erantzule bakarrak.

Halaber, txertaketak ikastetxeetan egiteak haurren datuen pribatutasunerako eskubidea urratzen du. Txertaketak norberaren historia klinikoaren parte dira, eta kasu honetan, haurren eta gurasoen pribatutasunean mantendu beharrekoak dira. Inork ez du zertan jakin nork hartzen duen txertoa eta nork ez, ezta zein txerto hartzen duen ere.

Horrenbestez, eta goian aipatutako arrazoiak direla eta, AskeBizi Arratien taldeak ikastetxeetan txertatzearen kontrako iritzi argia du, eta eskoletan eta ikastetxeetan egiteari uzteko eskatzen du.

AskeBizi Arratien.



AskeBizi
Arratien